

Diagramak egiteko lehenbizi datuak behar ditugu. Horregatik, normalean taula bat erabiltzen da grafikoa egiteko.

2007. urtean ordenagailuan ibili diren Euskal AEko 15 urteko eta gehiagoko pertsonak

	Biztanleria: Guztira (milaka)	Ordenagailua (%)	Ordenagailua (pertsona Kp.)
Guztira	1.840,0	65,4	1.203,4
Lurralde Historikoa			
Araba	260,9	67,1	175,1
Bizkaia	992,9	65,6	651,3
Gipuzkoa	586,2	64,4	377,5
Sexua			
Gizona	894,7	67,0	599,4
Emakumea	945,3	63,9	604,0
Adina			
15 - 24 urte	195,8	92,7	181,5
25 - 34 urte	329,9	79,0	260,6
35 - 44 urte	346,3	75,6	261,8
45 - 54 urte	310,3	80,4	249,5
55 - 64 urte	261,5	60,5	158,2
≥ 65 urte	396,2	23,3	92,3
Heziketa maila			
Lehen mailakoa	569,3	35,5	202,1
Bigarren mailakoa	870,2	75,0	652,7
Goi mailakoa	400,5	87,1	348,8
Jarduerarekiko lotura			
Ikasleak	154,6	95,5	147,6
Landunak	951,5	78,8	749,8
Ez-aktiboak/Langabeak	733,9	41,7	306,0
Familia mota			
Seme-alabekin	1.236,6	80,0	989,3
Bikotearekin	395,5	39,4	155,8
Bakarrik bizi direnak	208,0	28,0	58,2

Demagun barra-diagrama bat egin nahi dugula Euskal AE osoko eta lurralde bakoitzeko ordenagailuaren erabilierari buruzko datuekin.


Kalkulu-orria erabiliz honako urratsak eman behar ditugu:
 - Aukeratu eta kopiatu taula egiteko erabiliko dituzun datuak:

Guztira	1203,4
Lurralde Historikoa	
Araba	175,1
Bizkaia	651,3
Gipuzkoa	377,5

- Ireki kalkulu-orriaren orrialdea eta kopiatu bertan datuak, baina kontuz, gelaxka kopuru bera aktibatu beharko duzu eta.

- Hartu datu-multzo osoa eta sakatu grafikoen botoia. Orain aukeratu zein grafiko mota nahi duzun eta jarraitu agertuko zaizkizun ohar guztiak "amaitu" arte.

- Kalkulu-orrian agertzen den marrakia ebaki edo kopiatu dezakezu gero lanerako hartu dugun orrian itsasteko. Nahi baduzu, orria inprimatu dezakezu gainera.



Azkenean ezkerrean ikus dezakezun diagrama ateratzen da.

Grafikoa hobekuntzak ere egin daitezke. 1, 2, 3 eta 4 zenbakiak zer diren jarri nahi baduzu, kalkulu-orrira itzuli behar duzu eta zenbakiaren gainean dauden laukietan bakoitzari dagokion lurraldearen izena jarri.

Sakatu hemen datu horiek dituen kalkulu-orria jaitsi nahi baduzu: <http://www.eustat.es/estad/temalista.asp?tema=132&idioma=c&opt=0> baina hartu kontuan kalkulu-orri honetan ehunekoak ematen direla, eta ez datu absolutuak. Guk taula osatu dugu. Zuk ere egin dezakezu, nahi izanez gero, kalkulu-orrian bertan. Atal honetan: 15 urteko eta gehiagoko biztanleak, lurralde historikoaren, ezaugarri sozioekonomikoen eta etxeetako IKT ekipamenduen arabera. Urteko batezbestekoa (%). 2007.

❖ Egizu barra-diagrama bat ordenagailua erabiltzen duen pertsona kopurua sexuaren arabera bereiziz. Horretarako, lehenbizi hurrengo taulako datuak kopiatu behar dituzu eta gero jarraitu aurreko orrialdean ageri diren urratsak.

Sexua	
Gizonak	Emakumeak

(Barra-diagrama)

❖ Egizu barra-diagrama bat ordenagailua erabiltzen duen pertsona kopurua adin-tartearen arabera bereiziz. Horretarako, lehenbizi hurrengo taulako datuak kopiatu behar dituzu eta gero jarraitu aurreko orrialdean ageri diren urratsak.

Adina	
15 - 24 urte	
25 - 34 urte	
35 - 44 urte	
45 - 54 urte	
55 - 64 urte	
≥ 65 urte	

(Barra-diagrama)